

## Familia harrera haur edo nerabeentzat familia boluntarioetan

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Familia harrera, familia giro egokirik ez izateagatik Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean dagoen haurren edo nerabearen zaintza eta arretaren ardura familia bati ematen dion legezko neurria da. Helburua da haurrak zaintzea, elikatzea eta hezitzea, beren jatorrizko familiarekin harremana mantenduz.

Neurri hau garatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak familia edo norbanako pertsona boluntarioen lankidetzara behar du, babesgabezia egoeran dauden haurrei beren etxean harrera emateko prest daudenak.

Honako jarduerak garatzen dira:

- Eskaria jaso eta bideratu: Eskiera jaso eta familia harrerari eta hautaketa prozesuari buruzko informazioa eman.
- Prestakuntza eta hautaketa: harrera familia izan nahi dutenei prestakuntza ikastaro bat ematen zaie eta ondoren balorazio taldeak txosten bat egiten du, familia hori etxean haur bat edo nerabe bat hartzeko egokia den ala ez azalduz.
- Zaintza egokia izan dadin, haurra edo nerabea hartu duen familiari laguntza teknikoa eskaintzea

### Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA
- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia
- Haurren eta Nerabeen babeseko Zerbitzua

### Nori zuzenduta

Harrera familia izateko prest dauden pertsonak

### Baldintzak

Gipuzkoan bizi diren familiak edo norbanakoak, adinez nagusiak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Familia osoak ados egon behar du erabakiarekin
- Garbi izan behar dute bere nahia harrera egitea dela, ez adoptatzea.
- Prest egon behar dute haurra bere historia eta guzti hartzeko, bere ohiturak, familia eta izaera barne. Malgutasuna izan behar dute haurren edo nerabearen egoeran sor daitezken aldaketetara moldatzeko.
- Profesionalen informazio eta aholkularitza jasotzeko prest egon behar dute, harrerak irauten duen bitartean.

### Zenbatekoa

Familiak diru laguntza bat jasoko dute: harreran dauden pertsonen beharrei aurre egiteko, eta familian hartzeagatik; 2008ko apirilaren 23ko 603/08 Foru Aginduan jasotakoaren arabera. [2008ko maiatzaren 6ko 85 zk. GAO](#)

### Balorazio eta baremazio irizpideak

Haur baten harrera egiteko eskatzailearen egokitasuna baloratzeko kontuan hartu beharreko alderdiak, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteari buruzko 2005eko otsailaren 18ko [3/2005 Legearen](#) 73. artikuluan jasotzen dira (2005eko martxoko EHAA, 30 zk.)

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Gipuzkoan haurrak familia harreran hartzeko eskaintza](#)

### Aurkeztu beharreko agiriak

[Familiari adingabea hartzea eskaintzen zaienei eskatzen zaien dokumentazioa](#)  
[Zinpeko aitortpena](#)

### Eskaera moduak

» Presentziala

## Zuzeneko arretarako bulegoak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, adingabeak hartu nahi dituzten familien hautaketa eta prestakuntza zerbitzua kontratatua du; eta baita familia harrerarako laguntza tekniko ere:

Lauka, azterketa eta eskuhartze psikologikoetako zentroa SL

Cemei eraikina, Portuetxe, 23 A, 3. solairua

8 zk. Bulegoa

20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943-45.77.40

E-mail: [formacion.seleccion@lauka.org](mailto:formacion.seleccion@lauka.org)

## ARAUDIA

---

- Euskal Autonomia Erkidegoko haurren babeserako araudia: 2005eko otsailaren 18ko [3/2005 Legea](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- Espainiako haurren babeserako araudia: Kode Zibila eta 1996ko urtarrilaren 15eko [1/1996 Lege Organikoa](#), adingabearen babes juridikoari buruzkoa.

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Informazio gehigarria

Gipuzkoako Foru Aldundiak, etengabeko laguntza profesionala bermatzen dio adingabea hartu duen familiari: bere eginkizunak betetzeko aholkuak emanez, eta haurrak jatorrizko familiarekin dituen bisitetan lagunduz. Aldi berean, Foru Aldundiak, hainbat diru laguntza eskaintzen ditu, ondorengo helburuarekin: haurra edo nerabea hartu duten familiek zaintzaren gastuak osorik bere gain ez hartzea. (2008ko apirilaren 23ko 603/08 Foru Agindua, 1999ko martxoaren 23ko 35/99 Foru Dekretuak ezarritako zenbatekoak eguneratzen dituena). [2008ko maiatzaren 6ko 85 zk. GAO](#)